

IKASKETAK

IKASTEKO AUKERA EZBERDINAK:

UNIBERTSITATE IKASKETAK

Unibertsitate karrera bat ikasi ahal izateko, lehendabizi selektibitatea edo 25 urtetik gorakoentzako proba gaindituta eduki behar dute. Presoak ez badauka bietako bat ere, kartzelan egin dezake 25 urtetik gorakoentzako proba. Unibertsitate bakoitzak bere azterketa antolatzen du. Azterketa hori gainditu ondoren, unibertsitatara sar daiteke.

Frantziar estatuan edo espainiar estatuan preso egonik, unibertsitate ikasketak egiteko aukerak ezberdinak direla.

- Espainiako estatuan

Espainiar estatuan ezin dute UPVn ikasi, UNEDen ikasi behar dute (*ikus 1. eranskina*). Unibertsitateko sarbide proba egiteko zein ikasketak hasteko kudeaketa presoak berak egin behar ditu kartzelatik zuzenean, kartzeletarako programa berezia baita UNEDeko hau. Sarbide proba ere UNEDek berak antolatzen du eta kartzelatik bideratu behar izaten dute. Espainieraz baino ezin da ikasi.

UNEDeko ikasketak dohainik izaten dira; baina gutxieneko ikasgai kopurua gainditu beharko dute urtero-urtero beka gorde ahal izateko.

- Frantziako estatuan

Frantziar estatuko kartzeletan UPVn ikas dezakete, edota Frantziako zenbait unibertsitatetan; UNEDen aldiz ez. UPVko sarbide proba egiteko matrikula otsailean izaten da (*ikus 2. eranskina*). Frantziako unibertsitateetako kartzelatik zuzenean bideratu behar dute.

UPVko ikasketen antolaketa erabat finkatu arte, ikasketa batzordeak bideratuko ditu matrikula guztiak.

Orain arte, presoek beka ematen diete UPVn ikasteko; baina, urtero-urtero negoziatu behar dugu.

LANBIDE HEZIKETAKO (LHko) ZIKLOAK

Frantziar zein espainiar kartzeletan LHko hainbat ziklo egiteko aukera dago (*ikus 3. eranskina*). Goi Mailako Zikloak egiteko, gutxienez, batxilerra eginda eduki behar dute; Erdi Mailako Zikloak egiteko, DBH titulua izan behar dute.

LHko Ziklo hauen arlo teorikoa baino ezin dute ikasi, Zikloetan dauden enpresa-praktikak egiteko aukerarik ez dagoelako. Edozelan ere, arlo teorikoan gainditutakoak balio ofiziala izango du, eta ez du "kadukatuko". Oraindik ezin dira ziklo guzti-guztiak euskaraz egin, baina epe laburrean eskaintza hizkuntzan bietan izatea espero dugu.

HIZKUNTZAK

Kartzelan bertan kudeatzen dituzte ikasketa horiek, espainiar zein frantziar kartzeletan.

Euskarazko titulazioa atera nahi izanez gero galdetu Ikasketa Batzordeari.

BESTE ZENBAIT

Beste aukera bat da presoek beren kabuz ikastea, hau da, unibertsitateko irakasle batzuek konpromisoa hartu dute hainbat gairen inguruan presoek lanak bidali eta zuzentzeko. Lan hauek ez dute inolako balio ofizialik.

1. Eranskina. UNEDeko eskaintza (2007-2008) (Espainiako kartzeletan baino ez)

Código	Estudios	Atención !!
00	Curso de acceso	
01	Derecho (Plan 1953)	En extinción. No ofertar.
02	Geografía e Historia	En extinción. No ofertar.
03	Filología Española	En extinción. No ofertar.
07	Ciencias Físicas	
08	Ciencias Matemáticas	
09	Ciencias Químicas	
10	Ingeniería Industrial	En extinción. No ofertar.
11	Ciencias Políticas	
12	Sociología	
14	Psicología (Plan 1979)	En extinción. No ofertar.
24	Ciencias de la Educación	En extinción. No ofertar.
34	Filosofía (Plan 1980)	En extinción. No ofertar.
40	Informática de Sistemas (Plan 1993)	En extinción. No ofertar.
41	Informática de Gestión (Plan 1993)	En extinción. No ofertar.
42	Administración y Dirección de Empresas	
43	Economía	
44	Historia	
45	Filología Hispánica	
46	Filología Inglesa	
47	Psicología (Plan 2000)	
48	Pedagogía	
49	Psicopedagogía	Sólo con licenciatura terminada.
50	Educación Social	Diplomatura (tres cursos)
51	Derecho (Plan 2000)	
52	Ingeniería Industrial (Plan 2001)	
53	Informática de Sistemas (Plan 2000)	
54	Informática de Gestión (Plan 2000)	
55	Ingeniería Informática (2º Ciclo)	Diplomatura (tres cursos)
56	Turismo	
57	Filosofía (Plan 2001)	
59	Antropología Social y Cultural	Sólo con licenciatura terminada.
60	Ciencias Ambientales	No en cárceles.
61	Trabajo Social	Diplomatura (tres cursos)
62	Ingeniería Técnica Industrial Electrónica- Indust.	
63	Ingeniería Técnica Industrial Mecánica	
64	Ingeniería Técnica Industrial Electricidad	
65	Diplomatura Ciencias Empresariales	Diplomatura (tres cursos)

* Kartzeletatik bertatik gestionatu behar da guztia.

2. Eranskina. UPVn sartzeko baldintzak eta eskaintza (Frantziako kartzeletan soilik)

Une honetan, UPVn onartutako protokoloan agertzen diren ikasketak baino ezin izango dira aukeratu; ondoko hauek, hain zuzen ere:
(Hego Euskal Herriko edozein preso egin dezake matrikula honako kanpusetan)

Arabako Kanpusa:

Lizentziaturak: Filologia (Euskara, Alemanera, Klasikoa, Frantsesa, Hispanikoa, Ingelesa), Geografia, Historia, Artearen Historia.

Bizkaiko Kanpusa:

Diplomaturak: Enpresa Zientziak, Lan harremanak.

Lizentziaturak: Arte Ederrak, Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza, Ekonomia, Zientzia Politikoak, Kazetaritza, Publizitatea eta Harreman publikoak, Soziologia.

Gipuzkoako Kanpusa:

Diplomaturak: Magisteritza (Heziketa Berezia, Haur hezkuntza eta Lehen hezkuntza), Gizarte Hezkuntza.

Lizentziaturak: Deretxo, Filosofia, Pedagogia, Psikologia

2. mailako lizentziaturak (lizentziadunak direnentzat baino ez): Administrazio eta Enpresa Zuzendaritza, Kultura eta Gizarte Antropologia, Psikopedagogia

Presoak ez badauka selektibitatea eginda, Frantziako kartzela batean egonda, **25 urtetik gorakoentzako proba** egin dezake UPVn. Eta azterketa hori gainditu ondoren, unibertsitatera sar daiteke.

Proba hori egiteko, lehen-lehenik, zer ikasi nahi duzun jakin beharko duzu, proba eredia ikasketen arabera baitago antolatuta.

Matrikula otsailean egiten da eta azterketa, berriz, apiril-maiatzean.

25 urtetik gorakoentzako azterketa egin nahi duzuen guztiok ikasketa batzordekoekin harremanetan jarri, matrikula eta probaren gaineko zehaztasunak jakiteko eta, era berean, ondorengo datuak helarazi beharko dizkiguzue:

UPV-n Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Izen abizenak
- Jaiotze data. Herria. Posta kodea
- NAN zenbakia eta fotokopia; matrikula egiteko zenbakia gutxienez.
- *Argazki bi*
- UPVn emateko helbidea. Herria. Posta kodea. Herrialdea
- Telefonoa
- Aukeratutako **arloa**.
- Aukeratutako **karrera** (*badaezpada, bi edo hiru karrera aipatu*)
- "Atzerriko Hizkuntza" atalean aukeratutako hizkuntza
- Azterketa zein hizkuntzatan egin nahi duzun: euskaraz ala espainieraz
- Ikasketak zein hizkuntzatan egingo dituzun, euskaraz ala espainieraz
- Gurekin batera ikasketen ardura eramango duen pertsonaren izena eta telefonoa.
- Bekarako, banku-kontu baten zenbakia (20 digitu)

3. Eranskina. LHko Zikloak eta baldintzak

Ondoan, Lanbide Heziketako Zikloak egiteko eskaintza duzu. Lakuako Hezkuntza Sailaren ardurapean dagoen ikastetxeren batean izango duzu ikasteko aukera; EAEko ikastetxeetan, beraz.

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROPOSAMENA. 2007-2008 ikasturtea	
Goi Mailako Zikloak	
Administrazio eta Finantzak - <i>Administración y Finanzas</i>	Diseinu Grafikoa - <i>Diseño gráfico</i> Dietetika - <i>Dietética</i>
Nazioarteko Merkataritza - <i>Comercio Internacional</i>	Gizarte eta Kultur Animazioa - <i>Animación social y cultural</i>
Merkataritza-Kudeaketa eta Marketina - <i>Comercio, Gestión y Marketing</i>	Gizarte Integrazioa - <i>Integración social</i>
Informazio eta merkaturatze turistikoa - <i>Información y turismo</i>	Ingurugiro kimika - <i>Química y medio ambiente</i>
Komertzio eta Merkataritza - <i>Comercio</i>	Haur hezkuntza - <i>Educación infantil</i>
Informatika sistemen Administrazioa (1) - <i>Administración de sistemas informativos</i>	Lan arriskuen prebentzioa - <i>Prevención de riesgos laborales</i>

(1) Ordenagailua ezinbestekoa da.

Erdi Mailako Zikloak	
Administrazio Kudeaketa - <i>Administración y Gestión</i>	Arreta soziosanitarioa - <i>Atención socio-sanitaria</i>
Merkataritza - <i>Comercio</i>	

Ondoko hauxe da informaziorik esanguratsuenak:

Matrikula "libre" izango den arren, ikastetxeak zera eskainiko dizu: jarraipen akademikoa eta ebaluazioa egokitua, lanen edota azterketen bitartez.

Gogoratu, Ziklo hauetako **lantegietako praktikak** ikasle presook ezin izango dituzue egin, salbuespenak salbu. Horrek zera dakar: titulua ez duzula lortuko, baina gaindituko dituzten moduluek balio ofiziala izango dute. Era berean, gerta daiteke Moduluren (ikasgairen) bat ezin izango dutela kartzelan egin, oso praktikoa delako. Izena ematearekin batera esango dizute horrelakoren bat egongo balitz.

Batxilerra egin nahi izanez gero, antzeko prozedura erabiliko dugu.

Interesatuta egonez gero, Ikasketa taldekoekin jarri harremanetan.

Matrikula egiteko zera prestatu beharko duzu etxeoekin batera:

- Erdi Mailako Zikloentzat **DBH titulua** edo antzekoa eta Goi Mailako Zikloentzat

Batxilergo titulua edo baliokidea.

- NAren zenbakia eta fotokopia, baita argazki bi ere.
- Etxekoen helbidea eta telefonoa matrikula-orrian agertzeko, eta gurekin batera ikasketen ardura eramango duen pertsonaren izena eta telefonoa; e-maila badu.
- Euskaraz ala espainieraz egin nahi duzun zehaztu. Ziklo guztiak ez dira oraindik euskaraz ematen, baina saiatuko gara ikastetxe egokia topatzen.